

# Birmoldaketa digitala

**Carmen Peñafiel**  
UPV/EHUko Irakasle Titularra

Telebistaren etorkizuna digitalizazioan oinarrituko da; horretarako, 2010. urtea baino lehenago, irrati-hedapenaren kanal guztiak birmoldatu beharko dira. Espainian telebista digitala lehenengoz 1997an satelite bidezko komunikazioarekin zabaltzen hasi zen; ondoren, kable bidezko telebistarako lehiaketak egin dira eta, azkenik, orain dela gutxi lurreko telebista digitalaren esleipenarekin osaturik gelditu da eskaintza. Giro aldakor honetan, ikusentzunezko kazetariak sistema digital berrietara balio-aniztasun eta malgutasunez egokitu behar dute.

The future of TV in Spain is bound for digitalization, fact that will force broadcasting to become digital by the year 2010. Digital TV in Spain started with satellite communication in 1997. Later on, cable TV was licensed to some companies and more recently, *Onda Digital* has been given the rights over terrestrial TV, which will complete the offer. Within this frame of changes broadcast journalists must adapt themselves with flexibility and multiple resources to these new digital systems.

## **1. Zenbaki-iraultza telebistan**

Irratian eta telebistan sistema digitalen aldeko apostu sendoa egin da. Hain zuzen ere, 1997an satellite bidezko plataforma digitalek hasiera eman zioten prozesu horri, hurrengo urtean (1998) martxan ipini zen kable bidezko telebista baino lehenago. 1999ko ekainean, hamar urtez Lurreko Telebista Digitalaren ustiapena Retevisióni ematen dion Erret Dekretuaren onarpenarekin eskaintza osaturik geratu da. Modu berean, uztailean Lurreko Irrati-Hedapenaren Nazio Plangintza Teknikoa onartu da: herri-izaera edukiko duten 6 irrati-programa, erregioetarako 12 eta Estatuaren esparru osoan 18 gehitu dira.

Eskaintza digitalaren handitze honek, besteak beste, espektroradioelektrikoaren barruan, kanal libre asko edukitzea ahalbidetuko du, Estatuak kanalei zer erabilpen berri emango dien ikusi beharko badugu ere.

2010 urterako, irrati eta telebistaren enpresa guztiek oraingo sistema analogikotik digitalera pasatu behar izango dute. Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus kanal pribatuek ere beren emankizunak teknologia digitalarekin 1999ko azaroaren 1ean hasi behar zituzten, kanal analogiko baten ustiapen-baimena berriztatzeo aukera izateko aurrebaldintza bezala ipini dietelako. Kanal publikoak (estatalak eta autonomikoak) beren emankizunak digitalizatzen data berean hasiko dira. Modu berean, oraingo kontzesio pribatuen berriztatzea (2000ko martxoan) teknologia digitalera berehalako bilakaera onartu behar diren baldintzapean egongo da. Kasu honetan, bakoitzari orain daukaten programazio analogiko bakarraren ordez, lauzpabost programazio emateko ahalmen nahikoa izango duen kanal anizkun bana emango zaie.

## **2. Telebista digitala, ingeniartzaren eragiketa bat baino zerbait gehiago**

Telebista digitalak abantaila tekniko batzuk dauzka: banda-zabaleraren aprobetxamendu egokiagoa duenez gero, kanal analogiko batek betetzen zuen espazioan 12 kanal digital sar daitezke; seinalearen kalitate eta sendotasunaren hobekuntza, irudi bikoitzik eta interferentziarik gabekoa; CD kalitateko soinua; hizkuntza asko; beharrezko antenak txikiagoak izango dira; eta abar. Kalitate eta ahalmen handiagoek zerbitzu berriak eta oraingoak hobetzeko aukera emango dituzte, esate baterako zehaztasun handiko telebistaren zabalkundearekin.

Telebista digitalak hiru baliabide erabil ditzake: satellitea, kablea eta bide hertziarra. Jakina, hauetatik bakoitzak erabilera jakina dauka; bakoitzean abantailak eta desabantailak daude.

Telebista digitalarekin informazio, taiuera eta edukinetan, malgutasun handiagoa daukagu, telebista digitalaren eskaintzan honako ahalmen hau baitaukagu: bideoa, soinua (monoa, estereo, binakoa, inguratzaila, disko trinkoaren kalitatea), teletestua eta azpigituluak ipintzea, zerbitzurako informazioa, baldintzatutako sarbidea, datuak, zehaztasun handiko telebista, formato berriak: 16:9, 2.21:1 ... , hots, pantailaren 4:3 ohiko formatotik edo aspektuaren neurritik 16:9ra pasatzen da, irudiaren zehaztasun hobea eta giza begiaren ikusmoduaren antzeko ikusketa panoramiko berria eskainiz.

Bestetik, orain arte egin den bezala, monitoreak gehitu ordez, guztiak aparatu batean biltzera jotzen da, multimedia-terminal bakarra erabiltzeko. Multimedia-terminalak ordenagailuaren pantaila, bideodiskoak, CD-ROMa, multimedia, CD soinua, telebistaren kanalak eta abar bideratzeko balio du. Terminala ZISD(ISDN) deitutakoekin eta telefonoarekin konektatzen da. Hartzea CD audio, CD bideo eta CD fotoekin bateragarri egiten duen multimedia daukagu. Pelikulak edo argazkiak ikusi ahal dira. Argazki eta bideo-sekuentzietan aldaketak eta esku-hartzeak egin ahal dira komando gutxi eta sinpleekin, hala nola nahi den lekuan musika edo soinuak sartzea edo ordezkatzea eta irudi bakoitzari ukitu pertsonal eta iradokigarria erantsiz. Fax/modem eta erantzungailu automatiko moduan ere funtziona dezake. Hau da, ezagutza zabaltzeko edo jostatzeko interesgarri suerta daitekeen informazio guztia berehala aurkitzeko datu-sareetan sartzen da. Funtsezko ezaugarrietako bat telebistei elkarreragina eranstea da. Elkarreraginezko telebista deitutakoak sortzen dira. Urrunerako agingailua, telefono-sareari konektatzeko modema, mikroprozesadore bat eta informazioa trukatzeko beharrezko izan daitezkeen beste periferiko batzuk daramatza telebistak (Cebrián 1998: 147).

Une honetan, telebistatik Internet sarean zuzenean sartzeko esperimentatzen ari da, sare horren bidez telebistaren irudiak ere hel daitezen; baina oraindik, ZISD delakoaren eta zuntz optikoaren azpiegitura nagusitu arte behintzat, zaila da.

Oraintsuko beste berrikuntza bat satelitearen bidezko plataforma digitalek elkarreraginezko zerbitzu berri bat abiaraztea izan da, honela Argentarian, La Caixan eta BBVn, zerbitzu honetara harpidetu diren bezeroek banku-informazioak jasotzea daukatelarik (Argentariak eta BBVn beren bat-egitea publiko egin zuten 1999ko urriaren 19an). Urrunerako agingailuaren bidez, kontuen mugimenduak eta saldoak kontsultatzen, transferentziak eta eskualdaketak egiten, Burtsan akzioak salerosten, kreditu-txartelen zenbaki pertsonalaren aldaketa edo txekak eskatzen utziko die telebankaren erabilpenak. Kasu batzuetan ikuskizunetarako txartelak gordetzea eta erostea ere izango da. Modu berean, baloreen merkatuaz, trafikoaz edo informazio meteorologikoaz, denbora errealera oraingotuak, elkarreraginezko zerbitzu berriak sortzea aurreikusita dago (R.G.G. 1999).

Bestetik, telebista digitalaren estandar berriak irudiak hartzeko eta igortzeko 18 formato erabiltzea dauka, bi multzotan banaturik: zehaztasun handiko formatoak eta zehaztasun estandarrekoak. Zehaztasun estandarreko taldea hamabi era desberdinez osatuta dago; lehen multzoa, ordea, kalitate desberdineko sei formatok osatzen dute. Espektoaren malgutasun horri esker, kate bakoitzak bere sei kanal digitalak nola erabili erabaki ahal izango du. Seiak zehaztasun handiko kanal batean emititzeko erabili ahal izango ditu ala zehaztasun estandarreko askotariko kanalak eskaini (Battle 1998).

Arestian aipatutako abantaila teknikoez gainera, telebistan zenbaki-iraultzak ohiko telebistaren aurrean erabiltzaileoi zerbitzu aurreratu berri sorta bat edukitzea ahalbidetuko digu.

Gaikako kanalak dituen aukerako telebista dugu. Ereku urriko ikusleentzat askoz espezializatuagoak izango diren kanalentzako merkatua zabaltzen da.

*la Eskaeraren Gaineko Bideoa*, NVOD (Near Video On Demand): programa berbera bitarte desberdinetan hasten da, honela hasiera gehien komeni zaigun orduan ikusteko aukera daukagu.

Programa puntualak ikusteagatiko ordainketa (Pay per view), musika-ikuskizunak, kirol-gertaerak, emanaldiak eta estreinaldiko zinea batez ere.

Errealizazio konpartitua, hau da, kirol-ikuskizunetan angelu askotariko aukeraketa; hartze ezberdinen artean aukera dezakegu, gure programa propioa eraikitzeko.

Elkarreraginezko menua, kanal guztien artean aukera errazagoa emango digun telebista emanaldien gida moduan.

Gainera, elkarreraginezko zerbitzu multimedia, autoprogramazioa, gidatutako publizitatea, teledenda, publizitate espezializatua, eleaniztasuna, inkestak, botoak, ikusleen kopuruak ezagutzea, eskaerapeko musika, mosaikoa, telehezkuntza, elkarreraginezko jokoak, kazetaritza elektronikoa, posta elektronikoa, berri espezializatuak, txartelak eta jazarlekuak gordetzea (antzerkia, zinea), orrialde horiak, telemarketina, bideomintzaldia, telefonia, datu-transferentzia...

Dagoeneko, telebista-ikusleak pasibo izateari utzi dio, eta zer zerbitzu-mota, zer eratakoa, zer modutan eta noiz ikusi erabakitzeko orduan zeregin garrantzitsua jokatu du hemendik aurrera. Informatika, aisia eta komunikazioaren arteko sinbiosi ezin hoberantz gabiltza. Datozen urteotan komunikazioaren zerbitzu eta bideen ezaugarri nagusia elkarreragina izango da.

Gertatzen ari diren aldaketa hauekin guztiekin, eta etorriko direnekin, ikusleriaren portaera eta informazioaren kontsumoa nabarmenki aldatuko dira. Indibidualizaziorako eta autoprogramaziorako joera dago. Mariano Cebriánek honako hau esan du (1998: 145):

Deskodetzeko eta deskonpresiorako aparatuak dituzten telebista digitalen ekarpen nagusia telebista eskaintzeko era berriei atea zabaltzea da. Erabilitako denboraren bitartean eta ordaindu beharreko tarifaren kostuaren arabera, ordainketa-kanal eta ordainketa-programa bakoitza kontrolatuta dago. Dagoeneko telefonoarekin egiten ari den modu berean, gailu hauei sare adimendunaren aplikatzeaz ari gara, telebistaren erabilpen desberdinak bereiz ditzan; modu horretan kanal eta programen eskaintza zabalean aukeratu ahal izango duena ikuslea izango da.

### **3. Retevisión, lurreko telebista digitalaren aitzindari**

Lurreko telebista digitalean, hamalau kanalez osatutako plataforma ustiatuko duen taldearen inguruan zegoen zalantza argitu da: Retevisión izango da bigarren erabateko operadore espainiarra, Onda Digital deritzanaren plataformaren bidez.

1999ko ekainaren 18ko bilkuran, Ministro Kontseiluak hamar urtez lurreko telebista digitalaren ustiapena Onda Digitali eman dio. Orain dela bi urte, satelitearen bidez zabalkundearekin hasi zen eskaintza digitala betetzen du onarpenak. Geroago, kable bidezko telebista digitala Espainiako eskualde desberdinetara Sustapen Ministerioak azken urtean ebatzitako berrogeita hiru

lehiaketetan parte hartu duten telekomunikazio-operadoreen bidez iritsiko da. Telebista digitalaren hedapenak jauzi teknologiko handia dakar berekin, telebistaren bestelako ikuskera barnean hartuz eta, bestetik, kontsumitzaileen ohituretan funtsezko aldaketak dakartza.<sup>1</sup>

Aldez aurretik Retevisión irabazletzat hartzen zen, ikusentzunezko seinaleen zabalkundearen esperientziaduna delako, 1996an Madrilen sare pilotu batekin lurreko telebista digitalaren emanaldi esperimentalak hasi eta modu berean Bartzelona hirian ere esperimentuak egin zituelako. Orain, Retevisión taldea, Espainiako ikusentzunezkoen merkatuan, Sogecable eta Telefónica-ren lehiakide garrantzitsu bilakatu da.

Baimena hamar urteko eperako emana izan da eta horrenbeste urteko epetan luza daiteke. Sustapen Ministerioak iragarri duen moduan, Onda Digitalak erkidego autonomo guztietan 1999ko azaroaren 15ean hasteko konpromezua hartu zuen. Agiri berean, Onda Digitalaren emankizunek "urtea bukatu baino lehen, populazioaren %77arentzako zabalkundea lortuko dutela" ziurtatu du Ministerioak<sup>2</sup>.

Hemendik aurrera bere ardurapean hiru kanal multiplex edukiko ditu, hau da, 12 programa digital; hauek 12 kanal gehi 2 programa gehigarriren baliokideak dira. Orotara, gaikako programazioarekin kodetutako 14 telebidezko kanal, salbu programazio bakoitzeko 32 ordu astean, ordu hauek irekian emango dituztelako; baita soinu estereofonikoaren kalitatea duten bost musika-programa ere. Eta dena hilabeteko 2.000 pezetako kuota baten truke. Antena hertziarren oraingo azpiegitura darabil (beren-beregizko teknologia behar duten kable eta sateliteek ez bezala). Lurreko telebista digitalaren sistema hau Erresuma Batuan, Japonian, Estatu Batuetan eta Suedian bakarrik ezarria izan da.

Onda Digitalaren %49 Retevisiónen esku dago eta Euskadiko Euskaltelek ere %1,5a dauka. Media Park ekoizle katalanak %15 dakar, Carlton britainiarrek %7,5 eta zenbait aurrezki kutxak %12. Igortze- eta garraio-sarearen plataformaren garapenean Onda Digitalek 112.413 miloi pezeta jartzeko konpromisoa hartu du bere eskaintzan.<sup>3</sup>

Lurreko telebista digital (LTD) berriak soinuan eta irudian oraingo telebistak baino kalitate askoz handiagoa eskainiko du; satelitearen bidezko telebista ordainduaren plataformen erabiltzaileek dagoeneko dituzten elkarreraginezko zerbitzu berberak erabiltzeko (teleerosketa, telebanka, teletestu aurreratua, elkarreraginezko publizitatea, etab.), Interneten eta beste informazio zerbitzu batzuetan sartzeko edo bideo-hitzaldietan parte hartzeko aukera izango dute.

---

1. Donal Wear, Discovery Internationaleko Lehendakariaren ustez, «telebistaren merkatu espainiarra oso aktiboa da, aukera asko ematen ditu. Satelitearen bidezko plataformak hazten ari dira eta ahalegin asko egin ondoren, finkatzen ari dela ikusten dugu begi onez. Telebista aisiaren tarte garrantzitsua da Espainian» (Donal Wear, Discovery Networks Internationaleko lehendakaria da eta Discovery Communications delakoak egindako produktu eta kanalak zabaltzeko arduraduna ere bai; enpresa hau dokumentalen arloan John Hendricks enpresaburu eta abenturazale estatubatuarrek sortutako baltzu ospetsua da), "El País", 1999ko maiatzaren 14, ostirala, 85 orr.

2. "El País", 1999ko ekainaren 19, larunbata, Gizartea/41 orr.

3. <http://www.la-moncloa.es/consejo/referen/e1806990.htm>

LTDak, kanal ireki doanekoak –normalean publizitatearen tarteek finantzatutakoak– edo kanal kodetuak ordainaren truke eskaintzeko aukera emango du. Katearen bidaltzaile berberak bere finantzabideak erabakiko ditu eta, gainera, eredu eta programazio mistoen artean aukeratu ahal izango du. Lekuen arabera, programa berberak eduki desberdinak izan ditzake lurralde-deskonexioak onartzen dituelako.

Lurreko Telebista Digitalaren Nazio Plangintza Teknikoa (1998ko urriaren 9an Erret-Dekretuak onartua) babesten duen arau-esparrua, oinarrian, indarrean dagoen Telebista Pribatuaren Legeak finkatutakoa da, beronek ere teknologia digitalera egokitzeko aldaketa garrantzitsuak izan dituela.

Lurreko telebista digitalaren lehiaketarako deialdiak kritika gogorrak jaso ditu, hainbat talde politikotatik eta kate pribatuetatik. Urtean zehar, prentsan, lurreko telebista digitalaren ezarpena “arrapaladan” egina dela, Gobernu eta Retevisión-en artean “lagunkeria” dagoela, oraingo kanal pribatuekin “diskriminatzailea” dela edo dekretuak “gaizki erabiltzen” direla irakurri dugu.

#### **4. Programazioaren ohiko kontzeptuetan izandako aldaketak**

Orain arte zuzendariak eta programazioaren arduradunek ahalik eta ikuslerik gehien bilaketan gehiengoaren aldeko apostua egiten zuten eta, horretarako, jende askorengana iristeko programa errazak diseinatu zituzten, baina gaur eguneko satelitearen liberalizazioak bultzatutako telebista eta multimediaren garapenak lehiakorrako bihurtzen ditu eta programen eskaintza ohiko ereduak aldatzen. Programazio orokorrek segitzen dute baina, batez ere, gaien arabera espezializatutako kanalak eskaintzen dira, gero eta doaneko zerbitzu gutxiago dago eta eskaintza multzokatuta aurkezten duten ordaintzeko kanalak egitera jotzen dute. Emankizunak etengabe eguneko 24 orduetan dira eta menu nagusiaren bidez erabiltzaileak autoprogramazioaren kontzeptu berria jorrotzen du. Programak ez dira, besterik gabe, emanak izango; alderantziz, ikusleriak eskatzen dituen arte, gordeta egongo dira.

Aldaketa-dinamika honetan zenbait talderen esku dauden plataforma digitalak sortu dira. Ez daude telebista-kateak bakarrik, komunikazioaren enpresa-talde handiak ere badira, komunikazioaren munduarekin zerikusirik ez duten taldeak eta nazioarteko elkargoak biltzen dituzten plataformak osatuta.

Telebista digitalak 1.997an ekin zion satelitea erabiltzeari, estatu espainiarrean existitzen ziren plataformen bidez eginda: Canal Satélite eta Vía Digital.

Lehenengoa PRISA Taldeak menperatzen du; gainera, Huges talde estatu-batuarrak parte hartzen du; modu berean, Venevisión (Venezuela) eta MSV Multivisión (México), besteak beste, bultzatzaile ditugu.

Bigarrenak, Vía Digitalek, ordea, Telefónica, kate autonomikoak, Unidad Editorial –“El Mundo”ren argitaratzailea–, Televisa talde mexikarra, Murdoch talde britaniarra, Warner/TCI HBO estatubatuarra eta Oglobo brasildarra, besteak beste, biltzen ditu. Hasieratik gaur egun arte akzioen parte hartzean aldaketa batzuk izan dira: RTVEk Telefónicari bere %17a saldu dio. Bazkide sortzaileetakoak diren

Televisak eta telebista autonomikoeak murriztu dute beren akzioen kopurua. Eta orain dela gutxi Media Park ere sartu da taldean.

Canal Satélite Digitalek bere emankizunak 1997ko urtarrilaren 31n hasi zituen. Antena parabolikoa, deskodegailua eta zerbitzuaren ezarpena barne hartzen zituen inskripzio-kuota 32.500 pezetakoa da. Sarbide-kuota, ordea, hileroko ordaindu beharreko 1.000 pezetakoa zen. *Oinarrizko Paketeak* 24 kanal eskaintzen zituen 1.995 pezetaren truke. *Canal Plus Digitalek* formato digitaleko Canal Plusen programazioa eta beste ordu batzuetan Canal Plusen edukiak eskaintzen zituen; *Canal Rojo* eta *Canal Azul* biak ere hartzen zituen barnean eta 3.700 pezeta balio zuen. *Premiumak* Oinarrizko Paketearen programazioa gehi Canal Plus Digitalena hartzen zituen 4.995 pezetagatik. *Txarteldegia*k aukerako telebista eskaintzen zuen eta pelikula bakoitzeko 600 pezeta eta futbol-partiduko 995 pezeta ordaindu behar ziren. Canal Satélite Digitalen aukerako kanalek zinea 1.450 pezetagatik eta beste edukiak, esate baterako izadia edo musika, 750 pezetagatik ematen zituzten.

Vía Digital, ordea, bere lehiakidearena baino eskaintza merkeagoarekin hasi zen emititzen 1997ko irailaren 15ean. Inskripzio-kuota 5.000 pezetakoa zen, muntatze eta parabolikoaren erosketatik zetozen gastuei aurre egiteko. Deskodifikatzeko aparatuaren alokairua hilabeteko 1.000 pezetakoa zen. Edukien eskaintzari dagokionez, *Oinarrizko Paketeak* 35 kanal zeuzkan 2.500 pezetaren truke. *Gaikako zinearen* zazpi kanaletako bakoitzak 1.995 pezeta balio zuen. Gainera, aukerako telebistaren eskaintzan bi kanal sartzen ziren. Bata sendagileek bakarrik erabil dezakete dohainik; besteak, ordea, 1.000 pezeta balio zuen eta itsu eta gorrei zuzendutako Mundovisión zen. *Palco* izenpean agertzen ziren edukiei dagokienez eta ordaindu behar denari begiratuz, zinea –pelikula bakoitzeko 500 pezeta– eta gertaerak –besteak beste, ordaindu beharreko futbola, partiduko 995 pezeta– ematen zituzten.

Ordutik hona aldaketa gutxi egon dira bi plataforma hauen programen eskaintzan: egokitze batzuk, pakete batzuen sustapena eta programa berrien agerpena... eta filosofia berberarekin jarraitzen dute, hobetzen eta abonatu gehiago lortzen saiatzen.

Bi plataforma hauek telebistaren programazio orokorraren ohiko kontzeptua nabarmenki aldatu dute. Orain kanal askotariko programazioa daukagu eta lau maila bereizen dira: «ikusleria handientzako eduki zabalak aurkezten dituen; ikusleria murriztuentzako eduki espezializatuak; eduki zabalak, ikusleria txikitentzako; eta eduki murriztuak, ikusleria handientzako, baten bat gehiago izan litekeen arren» (Fernández 1998).

Gainera, Mariano Cebrián (1997) esaten duen bezala, «plataforma digitalen sorrerarekin, batetik komunikaziorako ahalbide berriak zabaltzen dira eta, bestetik, edukien eta teknologien kontrolatzaileen aldetik aginpide mediatiko handi baten arriskuak areagotzen dira ... mezu-kopuruak eta konplexutasunak estrategia analitiko berriztatzaileen garapena eskatzen duela» kontutan hartu behar da. Autore berberak honako hau baieztatzen du (1998: 68):

Egoerak oparitasunaren telebistaren mapa marrazten du, baina erabiltzaileen desberdintasunetan handitze zabalago batena ere bai. Nahiz eta oinarrizko kanalen eskaintzek salneurri merkeak eduki, hala ere, beste ahalbide batzuetan sarbideak gehiago diren neurrian, erabiltzaileen gastuak handiagoak dira eta pertsona guztiek ezin dituzte ordaindu. Harekin, ohiko telebista dohaneakoak bateratu zuen alderdia, hau da, giza desberdintasunak eta zatiketak, orain handitzeko arriskua agertzen da.

Kablearen eremuaren edukiei dagokionez, oraindik garatu gabe dagoela esan dezakegu eta, halaber, programazioan satelitearen bidezko plataforma digitalak erreferentziatzen hartzen dituela. Programak Espainia eta Portugalgo kable-sareei saltzeko hornitzaile handietariko bat, Cableantena, Canal Satélite Digitalen eskumenekoa, aipatu beharko genuke. Multicanal edukien banaketan espezializaturiko partzuergoa da eta Vía Digitalaren bidez jasotzen ditu bere kanalak. Bazkide garrantzitsuetariko bat RTVE da. Media Park, Kataluniako Generalitateak sortutako ekoizle katalana dugu, zeinean Tele 5, Antena 3, Philips, TV3 eta CCRTV parte-hartzaileak kable-telebistarako eta plataforma digitalerako programen ekoizpenaz eta bikoizketaz arduratzen diren. Eta Multipark Madrid S.A. deritzanak Telemadrid (%40), Caja Madrid (%30) eta Isabel II.a Ubidea (%30) ditu parte-hartzaile. Ikusentzunezko ekoizpenaren multimedia eta telekomunikazioaren zerbitzu-mota guztietan parte hartzen du (Xamardo et alii 1998: 163-176).

## 5. Profesional berrien balioaniztasuna

Komunikazio digital berriak antolaketa eta lan-moduak berrikustera behartzen du. Ikusentzunezkoaren arloan, kazetariak bere burua birziklatu behar du iraultza teknologikoari ekarpen egokia egin ahal izateko. Komunikabideetako profesional berriek malguak eta balioanitzak izan beharko dute, lehen lan-maila desberdinetan banatuta zeuden lan teknikoak edo kazeta-lanak egin, lan-tresna bakarra teknologia multimedia erabili eta irudi eta soinuaren grabazioa eta ekoizpen digitala menperatu beharko dituztelako.

Telebistak teknologia digitalean inbertitzen hasi dira: mini-kamerak, edizio-sistemak, grabaziorako VC-PRO sistemak eta informazioa kudeatzeko News Makerra lana errazago eta arinago egiteko tresnak ditugu. Lehenagoko prozesuak geldoagoak ziren. Kazetari globalaren irudirantz jotzen da (Gómez 1999: 12).

Telebistak ekoizpen-iraultza tekniko hau informatiboetan hasi du: TVEk orain saio-modukoa izan den Canal 24 Horas zerbitzu nagusien idazlaritzan ezarri nahi du.

Tele 5k bere sinesgarritasuna teknologian oinarritu du eta gaur egunean 2.000 milioi sartu ditu bere zerbitzu informatiboak digitalizatzeko (*La Revista*, 1998). Tele 5 telebista-katearen datu-artxiboak bideo-artxibo bilakatzen ari da. Horrela, PC bakar batekin postprodukzioa, artxiboa eta beste informazioetarako sarbidea dagoeneko egin daitekeela esaten du José Luis Romero Tele 5ko Atal Teknikoaren arduradunak. Tele 5an artxibo digitalek aldi berean dokumentalista batzuk irudi berberarekin lan egiteko eta nahi bestetan bideoaren segmentu bat dokumentatzeko ere aukera ematen digute. *Virage* katalagotzailea edukiaren aldaketak direnean automatikoki gelditzen da. Sistemak soinua ere aukera dezake eta testura pasatzeko ahalbidea eman. Pertsonak ahotsa identifikatzen ez badu



ere, sistemak egin ahal du. Hau guztiau artxibo digitalean ororen bateratzea dugu: irudiak, ahotsak, soinuak, ikusleak, egilearen eskubideak, etab. (Martín 1999: 7). Tele 5n asmoa ahalik eta lasterren aukerako telebista eskaintzea da, zeinean ikusleak Visa txartelarekin edo pasahitz simple batekin harpidedun izan daitekeen, "Médico de familia" telesaila, Cruyffen golak, pelikulak edo berriak ikusteko.

Berriak ematen 365 egunetako 24 orduetan emititzen duen CNN Plus lehenengo kanal espainiar pribatua atera da teknologia digitalarekin eta informazioaren ikuskera berri batekin. 80 kazetarik ikertu, idatzi, grabatu, soinua ipini, editatu eta errotulatu egiten dituzte informazio guztiak. Espainiako CNNko lehendakariak, Rolando Santosek, kazetari hauek benetako emakumezko edo gizonezko-orkestra bezala definitu ditu: «Gaur egunean hamar batek egiten zuen lan berdina egiten du pertsona batek» ("Abierto en canal" programa, Canal Plus). Prezio eta neurri txikiak dituzten minikamera digitalekin lan egiten dute, lehen hamar kilo pisatzen zuten eta orain ez dira bi kilora heltzen. Eta kazetari digitalak direnez beren ezaugarri nagusia informazio zabaltze eta ekoizpenean, malgutasuna eta bizkortasuna da. CNN Plus, %50 proportzioan, CNN eta Canal Plusen arteko elkarte da eta bere Administrazio Kontseiluan lau kidek ordezkatzeko dute elkarte osoa eta beste lauk Sogecable, baina kanalaren zuzendaritzan ez dago iparramerikar bat ere.

Hain zuzen ere, Mariano Cebriánek (1998: 20) ere telebistaren berriemailea definitzeko orduan bat egiten du aurrekoarekin:

Orkestra-zuzendaria bezalakoa da, tresna-multzo bat harmonizatu behar duena, bidali nahi den mezua osotasunez komunika dezaten. Ez du ekipo teknikoa erabiltzen jakin behar edo ez da espezialista izan behar; alderantziz, bere adierazbidea ezagutu behar du, berak telebistan informazioa lantzeko behar duena ekartzeko, espezialista bakoitzari exigitzen jakiteko helburuarekin. Orkestra-zuzendari moduan, zati guztiak antolatu, azaldu, erabili eta taiutu egiten ditu ikusentzunezko harmonia lortu ahal izateko. Ez da diseinatzaile grafikoa, ez errealizatzailea, ez kamera-erabiltzailea, ezta soinu-arduraduna ere, alderantziz, tresna tekniko eta adierazkor anitzek osatutako informazioaren zuzendaria da.

Laburtuz, hamar urte barru, estatu espainiarrean ikusentzunezkoaren panoramak erronka berriei aurre egiteko prest egon behar du; ez bakarrik ikuspuntu teknologikotik, ekoizpenaren aldetik ere, mezu informatiboak sortzeko eta kontsumitzeko era berrietarantz gabiltza. Gainera, ikusentzunezko komunikabideak ez dira bide desberdinetatik joango orain arte joan diren bezala; alderantziz, guztiak ikusentzunezko hizkuntza idatzi batekin osaturik egongo dira. Telebidezko eskaintzak, entzun-eskaintzak, bideoak, filmak, egunkari elektronikoak, datu-bankuak, telejokoak eta abar sare berean aurkituko ditugu.

## **Bibliografia**

Batlle, A. (1999): "Reinventar els informatius a l'era digital", *News-News*, Corporació Catalana de Radio y Televisióren hilabetekaria, otsaila, 114 zkia.  
CANAL PLUS TV., 1999an emandako programa: "Abierto en canal".

- Cebrián Herreros, M. (1998): "Información televisiva. Mediaciones, contenidos, expresión y programación", Síntesis argitaletxea, Madril.
- (1997): Donostiako UPV/EHUren Udako Ikastaroetan eskainitako mintzaldia.  
*El País*, 1999ko maiatzaren 14, ostirala, 85 orr.  
*El País*, 1999ko ekainaren 19, larunbata, Gizartea/41 orr.
- Fernández, E. (1998): "Los contenidos audiovisuales en el satélite y en el cable: la era de la bulimia audiovisual", Komunikazioari buruzko Ikertzaile Gazteen Nazioarteko V Jardunaldiak, La Lagunako Unibertsitatea, otsaila.
- Gómez, P. (1999): "Se va hacia el videoperiodista global", FAPE, otsaila-martxo.  
<http://www.la-moncloa.es/consejo/referen/e1806990.htm>  
*La Revista*, 1998ko irailaren 27.
- Martín, J. (1999): "El País", irailaren 9, osteguna, ciberpaís.
- R.G.G., 1999: "Vía digital anuncia servicios de telebanca", "El País" egunkaria, ekainaren 16, asteazkena, Gizartea/46 orr.
- Xamardo N., Zabaleta I., Peñafiel C. y Agirreazaldegui T. (1998): "La televisión por cable en España", UPV/EHUK subentzionatutako ikerketa-proiektu zabalaren emaitza, C.E.U., Valentzia.